



ZIZURKILGO UDALA

UDAL BANDOA / BANDO MUNICIPAL

Herritar hori,

Urtero bezala, iritsi da Udal tasak onartzeko garaia. Egoera ekonomikoak horrela eskatzen duelakoan, Udal tasek ez dute igoerarik izango datorren urtean. Hondakinen tasan soilik izango da aldaketa, zabor poltsak bide publikoan hondakinak bereizi gabe uztearen ondorioz zizurkildarren kostua igotzen ari baita.

Zizurkilgo Udalak hondakinen bilketa berria helburu argi batekin jarri zuen martxan: ahalik eta gehien birziklatzea. Sistema hau bidezkoagoa da, birziklatzen dutenen ahalegina aitortzeko aukera ematen baitu. Atez atekoa edo autokonpostajea Tolosaldeko Mankomunitatearen Ordenantzak dioenaren arabera egiten dutenek, gehiengoak, ez dute zertan jasan bide publikoan hondakinak bereizi gabe uzteak eragiten duen gain kostua eta horregatik diskriminazio positiboaren printzipioa erabiltza kuota berriaren igoerak ez du beren poltsikoetan eraginik izango.

Aitzitik, hondakinak bide publikoan bereizi gabe uzten jarraitzen duten herritarrei udal tasa berria aplikatuko zaie, oso-osorik. Aurreko urtekoarekin alderatuta %30 inguruko igoera dakar oraingoak, jarrera horrek udaleko diru-kutxan eragiten duen gain kostuarekiko proportzionala.

Hori bai, tasa horiek ez dira finkoak, hau da, herritar bat birziklatzen hasten denean tasaren zuzenketa aplikatuko zaio. Aurrerantzean, hiru hileko bakoitzean eguneratuko da aplikatu beharreko tasa, ondo egiten duena saritu egingo da eta birziklatzen ez duenak tasa altuagoa ordaindu beharko du.

Agur bero bat,

Estimado/a zizurkildarra,

El Ayuntamiento, como todos los años, va a proceder, próximamente, a la aprobación de las tasas municipales. Dada la coyuntura económica no se subirán las tasas municipales. El cambio se va a producir únicamente en la tasa correspondiente a la recogida de residuos como consecuencia del mayor coste que para los zizurkildarras está provocando el depósito no selectivo en la vía pública de las bolsas de basura.

El Ayuntamiento de Zizurkil estableció con un objetivo claro el nuevo sistema de recogida de residuos: reciclar lo máximo posible. Este sistema es más justo, ya que permite reconocer el esfuerzo que realizan aquellos que reciclan. Los y las zizurkildarras que hagan el puerta a puerta o el autocompostaje según lo dispuesto en la Ordenanza de la Mancomunidad de Tolosaldea, la gran mayoría, no deben soportar el sobrecoste que se provoca como consecuencia del depósito no selectivo en la vía pública y por tal razón se verán compensados en aplicación del principio de discriminación positiva de la tarifa de manera que el incremento de la nueva cuota no repercuta en sus bolsillos.

Por el contrario, a los vecinos que continuen depositando sus residuos de manera no selectiva en la vía pública, se les aplicará íntegramente la nueva tasa municipal, que implica un incremento del orden del 30% sobre la del ejercicio anterior y que resulta proporcional al gasto añadido que su actitud provoca a las arcas municipales.

Ahora bien, el nuevo sistema de tasa no es fija, es decir, cuando un ciudadano empieza a reciclar se le aplicará también la corrección de la tasa. Se actualizará la tasa aplicable cada trimestre, de este modo, se recompensará al que hace bien y el que no recicle deberá pagar una tasa más alta.

Un cordial saludo,

Zizurkilen, 2014ko azaroaren 6an

